



EGITARRAUA

KOLOKIOA

ARTXIBOA ETA SORKUNTZA

2
0
2
1

Webmintegia

EKAINAK 17-18



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies





Kolokioaren gaia **Artxiboa eta sorkuntza** izanez, bi aspektu aztertuko dira: alde batetik artxibo baten sortzeak eragiten duen prozesua eta galdezkatzea, bestetik artxiboetan oinarrituz izan daitezkeen sorkuntzak.

Artxiboaren sortzea

Artxibo estatusa ukaiteak erran nahi du, egun batean, elementu hori artxibotzat ekarria izan dela. Artxibotzat ekarria izateak suposatzen du elementua aitzinetik begistatu, hautatu, bereizi eta kontserbatu dela, ondotik begiratzeko eta ikertzeko gisan. Historialariak ikertu aitzin, artxiboa sortu behar da beraz, eta hau jakitate, praktika berezia da : artxibatzen jakin behar da, arrazoiak eman behar dira eta ondorioak neurtu ere bai.

Artxibatzeak badu zerikusirik historiarekin : biak hasten dira, Michel de Certeau-k zion bezala, jestu berdinarekin « aparte ematea, biltzea eta « dokumentu » bilakaraztea ordu arte sakabanatuak ziren elementuak ».

Artxibo estatura nola eta zendako heltzen den : hau izanen da beraz, kolokioaren lehen helburua.

Artxibotik sortzea

Bigarren helburua alderantzizko mugimenduaren ikertzea izanen da : nola idazleek, arte bisualetan ari direnek, musikariek, koregrafoek, dokumental edo filma egileek bereganatzen ote dute artxiboa beren sorkuntzaren hazkurri izan dadin? Nolako harremana sortzen da artxibo zaindariaren, artistaren eta jendartearen artean? Artxiboen memoriaren (oroimenaren) gizarteratzaile ote da artea?

Euskal Herriko sortzaileak ere dinamika horretan sartuak dira. Alde batetik, artxibo zentroek (Baionako mediateka eta museoak, departamenduko artxibo zentroa, Euskal kultur erakundea) ahal duten guziaz egiten dute beren fondoan biziartzeko. Bestalde, ofizialki artxiboak ekarriak ez direnak ere, hala nola paisaiak, giro bereziak, erran ezin ditugunak edo erakatsi gabe barneratzen ditugun dantza urratsak, horiek oro sorkuntza iturri dira.

N.B. : Mintzaldi guziaz euskarara eta frantsesera itzuliak izanen dira.
Jatorrizko hizkuntza pastilla batekin seinalatua da.

14:00 Lehen agurra (EKE et EHES)

14:30 - 15:30

HITZALDIAK

FR Sarrera hitzaldia. Artxiboak eta sorkuntza - **Denis LABORDE**
Antropologoa, Ikerketa zuzendaria (CNRS), Ikasketa zuzendaria (EHES), ARI - UMR Passages institutuaren zuzendaria

FR Artxiboen politika publikoak Frantzian: definizioak, eremu juridikoa, gaurko egoera - **Nadine ROUAYROUX**
Zuzendari ordea, Baionako eta Euskal Herriko poloko arduraduna, Pirinio Atlantikoetako departamenduko Artxibotegia

15:30 - 17:00

MAHAIN INGURUA: ARTXIBOAREN SORTZEA

FR Artxibo soinuduna: historia eta sorkuntzaren artean - **Pascal CORDEREIX**
Soinu zerbitzuko zuzendaria, Soinu, Bideo, Multimedia departamendua, Frantziako liburutegi nazionala (BnF)

EU Ahozkotik artxibora: Eleketa fondoa - **Terexa LEKUMBERRI**
Etnologoa eta Euskal kultur erakundeko ondare zerbitzuko arduraduna **eta George-André BANGUIO-MENDIBIL** *Kultura bitartekartitza poloko arduraduna*

ES Zer esan nahi du "euskal musika artxibatzeak"? - **Jon BAGÜES**
Zuzendari ohia, Eresbil Musikaren euskal artxiboa

17:30 - 18:30

HITZALDIA ETA PROIEKZIOA

DE Berlingo Humboldt Unibertsitateko (Lautarchiv) eta Etnologia Museoko (Phonogramm-Archiv.) euskal artxiboak - **Lars-Christian KOCH**
Berlingo Etnologia Museoko zuzendaria

EU Elena CAÑAS eta Ainara MENOYO-k zuzendu **Maitia non zira?** filmaren proiektzioa

9:30 - 11:00

HITZALDIAK

EU

Aurkikuntza eta lekukotza artean: Gerra zibileko argazki artxiboak argitara - **Aitzpea LEIZAOLA**

Irakasle agregatua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU)

FR

INA : numerikoaren berpizte editoriala eta ikus-entzunezko sorkuntza - **Hélène BETTEMBOURG**

Eskualdeko ordezkaria, INA Ikus-entzunezko institutu nazionala

FR

Net art-aren artxibatzea : media aldakor digitalen obrak - **Jean-Paul FOURMENTRAUX**

Unibertsitateetako irakaslea, Aix-Marseille Unibertsitatea eta EHESS

11:30 - 12:30

MAHAIN INGURUA: ARTXIBOTIK SORKUNTZARA I

FR

Plaque à part, Bayonne en gravures erakusketa - **Sylvie MARTIN**, *Liburuzaina, Baionako mediatekako ondare zerbitzuko arduraduna* **eta Jana LOTTENBURGER**, *artista, grabatu irakaslea ESAPB-n, Labo Estampe-ko kidea*

FR

Iturri aurkitzaile. Zientzia paraleloen eragina sorkuntzan - **Julie LAYMOND eta Ilazki de PORTUONDO**
DUO Y

FR

Comètes et Perdrix idaztea, *Finally* aferaren kontatzea - **Marie COSNAY**
Idazlea, ARI institutuari asoziatua

EKAINAREN 18A

14:00 - 14:30

HITZALDIA

FR

Artxibo gordea : Euskal Herriko dantzarako soinuaren historio soziala nola egin eta nola zabaldu? - **Xabier ITÇAINA**

Ikerketa zuzendaria (CNRS)

14:30 - 16:00

MAHAIN INGURUA: ARTXIBOTIK SORKUNTZARA II

EU

Munduko memoria guzia - **Lur OLAIZOLA**

Zine zuzendaria, Zinea eta Ikus-entzunezkoak departamenduko koordinatzailea (Tabakalera)

EU

Artxiboa eta euskal dantza - **Oier ARAOLAZA**

Dantzaria eta ikerlaria

EU

Artxibo soinudunak eta sorkuntza - **Xabier ERKIZIA**

Soinu artista eta musikaria

16:00 - 17:00

HITZALDIA ETA BUKAERA

FR

Retour à Višegrad: artxibo bakar baten hautua - **Julie BIRO**

Zine zuzendaria

ARGIBIDEAK

Euskal Kultur Erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.etnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 25 25

info@eke.eus

Dohainik eta deneri idekia



ANTOLATZAILEAK



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies



PARTAIDEAK

